
GAUR GAUEAN GELDITUKO GARA?
EZ EZETZ DA
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
ABE 12
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HERRIZAINGO SAILA
DEPARTAMENTO DE INTERIOR

# GAUR GAUEAN GELDITUKO GARA?

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

**Argitaraldia:** 1.a, 2012ko abuztua
**Ale-kopurua:** 5.000 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Herrizaingo Saila
**Internet:** www.euskadi.net
**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1– 01010 Vitoria-Gasteiz
**Egilea:** Sortzen Consultoría, S.L.
**Itzulpena:** Herrizaingo Saila
**Inprimaketa:** Ona Industria Gráfica
**L.G.:** VI 501-2012


LAGUN-TALDEA LARUNBAT GAUEAN ELKARTZEKOA DA. ANE ETA BI LAGUN LEHENAGO LOTU DIRA TRAGOXKA BAT HARTZEKO. BERAIENTZAKO UNE BAT IZAN NAHI DUTE. BESTE GUZTIAK GEROAGO ETORRIKO DIRA.
GAUR TAKOI HANDIAK BAZTERREAN UTZI DITUT. GAU OSOA DANTZAN EMANGO DUT SUFRITU GABE!
ETA GAUR GAUEAN OSO LIRAIN ZAUDE...
ZER! BAKARRIK ZAUDETE?


BAKARRIK? HIRU GARA. ZER ESAN NAHI DU? MUTILEKIN EGON EZIK, BAKARRIK AL GAUDE?
AIZU, EZ DIGU GRAZIARIK BATERE EGITEN. EZ AL DUZU IKUSTEN HITZ EGITEN ARI GARELA?
NOLAKO ASPERTU-AURPEGIA! HUTS EGIN DIZUETE, ALA?
GELDO-GELDO ZAUDETELA IKUSTEN DUT. TIRA! ETORRI GUREKIN TABERNAZULO BERRI BATERA, GUSTATUKO ZAIZUE ETA...
DISKO
HARA! BADUGU PLANA... ETA ASPERTU-ITXURA DUENA ZU ZARA. EKIN ETA EKIN ARI ZARENEZ, NAZKATZEN ARI GARA!
A ZER NOLAKO SORGINAK!
ZUENTZAKO KALTE!
EZ DAKIT ZERGATIK JARTZEN DIREN HORRELA... GAINERA, EDERRAK DIRELAKOAN DAUDE NONBAIT.


HANDIK GUTXIRA NESKAK KOADRILAKO MUTILEKIN ELKARTU DIRA ETA GAIARI BURUZ HITZ EGITEN HASI DIRA.
GERO ETA GUTXIAGO ULERTZEN DITUT MUTILAK. ASPERGARRIA IZAN BEHAR DU GAUERO MODU TXARREZ BEROA EMATEN IBILI BEHARRAK ZER EDO ZER LIGATU AHAL IZATEKO.
TIRA, ZUENTZAT ERE EZ DA SAMURRA... OHIKO MORROI GOGAIKARRI HORIEK AGUANTATU BEHARRA. BATZUETAN PENTSATZEN DUT EGOKIA IZANGO LITZATEKEELA NESKAK AZPITITULUEKIN ETORTZEA, HORRELA BENETAN JAKITEKO ZER DARABILTEN BURUAN.
BAI HORIXE! LEHENGO MUTIL HORREKIN NIRE AZPITITULUA HAU IZANGO ZEN: EZ DUT GUSTUKO NIRE TOKIA OKUPATZEA...
...EZ DUT GUSTUKO ZU EKIN ETA EKIN ARITZEA NIRI MESEDEA EGITEN DIDAZULAKOAN.
...EZ DUT GUSTUKO ZU ZAKAR JARTZEA EZETZ ESATEN DIZUDANEAN.
!
MUTILON JOKABIDEA ERE EZ DA BAZTERTZEKOA... BETI PREST TXORTAN EGITEKO. KOSTA ALA KOSTA EKITEA ETA NESKA BATEK ZU AUKERATU ZAIN GERATZEA...
ETA ZER!!... MUTILOK EZIN DUGU EZER ERABAKI?
JON, MOTEL, UTZI KONTU HORI ETA GOAZEN EDATERA!


LAGUN-TALDEA INGURUKO DISKO-BARREAN SARTU DA.
TXUM
TXUM


BARRUAN NESKA BAT ALDE BATETIK BESTERA DOA...
PUNTX PUNTX
UUUF... EA HELTZEN NAIZEN KOMUNERA!
NOLAKO ZIRRIA EGIN DIDAN MORROI HORREK IPURDIAN... EZ DIOT EZER ESANGO, BESTELA KRISTORENA GERTATUKO DA...
W.C.
MMMMRRRR!!!! IZUGARRI BERO JARTZEN NAUZU...
W.C.
W.C.
HAU DA HAU! KOMUNERA HELTZEKO ZIRRIAK JASAN BEHAR IZAN DITUT, MORROI HORREK BILUZIK SENTIARAZI NAU ETA, GAINERA, AMORRUARI EUTSI EGIN BEHAR DIOT ISKANBILARIK EZ SORTZEKO. GAUR EZ DUT LISKARRIK NAHI.
PUNTX
PUNTX
PUNTX
KLAK!
HARA! HEMEN ZERBAIT GERTATZEN BAZAIT, INORK EZ DIT ENTZUNGO... NIRE LAGUNEI ESAN BEHARKO NIEN NIREKIN ETORTZEKO.


KOMUN BARRUAN NESKAK GAIARI BURUZ HITZ EGITEN ARI DIRA.
NIK SUSMO TXARRA HARTZEN DIOT ZENBAIT KOMUNETAN SARTZEARI, EZ DIRA SEGURUAK ETA. NIRE LAGUNEK PARANOIKOA NAIZELA DIOTE ETA KOADRILAKO MUTILAK BARREZ LEHERTZEN DIRA.
BADA, NI EZ NAIZ BELDUR ETA EZ DUT ONARTZEN NI BELDURRARAZTERIK.
ONDO, BAINA ARRISKUA EGONEZ GERO, HOBE DUGU ELKARREKIN SARTZEA. NIK EZ DUT NEURE BURUA ARRISKUAN JARRIKO.
NI ERASOTA SENTITU NAIZ ETA TXARRENA DA AHOA IREKITZEN BADUT, PARANOIKOA EDO EZATSEGINA NAIZELA.
JONEK DENA IKUSI DU...
PUNTX
AIZU, USTE DUT EZ ZARELA JABETU DENAK EZ DUELA BALIO NESKEKIN JOTZEKO. EGITEN ARI ZAREN GAUZA BAKARRA DA ERASOTZEA.
PUNTX
IKUSI DIOZU NESKA HORRI AURPEGIA? EZ AL ZARA KONTURATZEN EZ ZAIOLA BATERE GUSTATU!!
BAINA... ZER AURPEGI? ZURI ZER GERTATZEN ZAIZU? LELOTU AL ZARA? HORRELA GAIZKI ZABILTZA, ERGEL HORI! MUTIL BATEK EZ DU AUKERARIK ALFERRIK GALDU BEHAR ETA NESKEI PORTAERA HORI ERAKARGARRI EGITEN ZAIE.
ZU BAI ZARELA ERGELA... PASATU EGIN ZARA ETA GAINERA USTE DUZU NESKARI GUSTATU ZAIOLA.



BITARTEAN, TABERNA BARRUAN GAUA AURRERA DOA NESKENTZAT...
AITOR ETORRI DA. NESKA, ZOAZ HARRAPATZERA!
ZERGATIK ITXARON BEHAR DUGU EA HURBILTZEN DEN? ZOAZ ETA ZER EDO ZER BURURATUKO ZAIZU... ZU OSO ATSEGINA ZARA ETA!!!
HAU LOTSA!... ETA EZETZ ESATEN BADIT?
AUPA, EZER HARTU NAHI DUZU?
PASO EGITEN DUT, NESKA, LAGUN BATZUEKIN NAGO ETA.
HAU PORROTA! GAINERA LOTSATUTA GERATU DA. OSO AUSARTA NAIZELA PENTSATUKO AL DU?
IKASI BEHARKO GENUKE EZETZ ESATEN SEGURTASUN HORREKIN. EZ DU NAHI ETA KITO! HORREK EZ DIEZAZULA GAUA HONDATU, ZUK BERDIN-BERDIN BALIO IZATEN JARRAITZEN DUZU ETA!!
BADA, EGIA DA.
ESKERRAK MUTIL GUZTIAK EZ DIREN BETI LIBRE EGOTEN.


UNE BAT PASATU OSTEAN, ANE...
BAGOAZ HORTIK?
HUMM.... JATORRA DA, BAINA EZ DUT NAHI, GUSTATZEN EZ ZAIDAN ZERBAIT BADAGO ETA.
EZ, NEURE LAGUNEKIN JARRAITUKO DUT.
ZER GERTATZEN DA? ZERGATIK EZ DIDAZU ZEURE ZENBAKIA EMATEN?
HARA, ESPERO DUT ASTUN EZ JARTZEA.
EZ
NESKEKIN JOAN GAITEZKE ETA GERO IKUSIKO DUGU...
AIZU, EZ DUT NAHI.
EZ


MUTILAK BEROTZEKO BIKAINA ZARA!
BADAKIT ZERGATIK EZ ZITZAIDAN GUSTATZEN.
EZETZAREN ZEIN ZATI EZ DUZU ULERTU?
GAUA AMAITZERAKOAN...
TIRA!, ASTELEHENA ARTE.
JONEK LIGATU DU.
IKUSI ARTE...
ANE, ETXERAKO BIDEAN... AZKAR DOA.
ZER ILUNA DEN TOKI HAU... ... URRATSAK ENTZUTEN ARI NAIZ... NIREAK DIRA! PARANOIKOA AL NAIZ?
KLOK
KLOK
KLOK
HARA... HORIEK NEURRIZ KANPO OTE DABILTZA? ESPALOITIK IGAROKO NAIZ ALA AURRETIK NOA?


ANEEEE! BAZATOZ BOKATA BAT JATERA?
BUF! NIRE AUZOKO IKER DA, ESKERRAK, ETA NI BELDURRAREN PARANOIAREKIN.
HAUEK NIRE LAGUNAK DIRA...
HANDIK PIXKA BATERA, JONEK ETXERAKO BIDEA HARTU DU...
HAU ZORTE ONA! BOKATERIA ORAINDIK ZABALIK DAGO. ZER EDO ZER JANGO DUT.


JON ETXEAN, BOKATA AFALTZEN ARI DA.
MMMF?
PLING!
3G
4:50
Txatak
Kristina
konektatuta
Info
Editatu
Kargatu aurreko mezuak
2012ko maiatzaren 7a
Ongi pasa dut. Berriz egingo?
4:50
Bidali
JAKINA. OSO GUSTUKOA ZAITUT.
PIK
PIK
PIK
PLING!
3G
4:51
Txatak
Kristina
konektatuta
Info
Ongi pasa dut. Berriz egingo?
4:50
Jakina!! ;-) oso gustokoa zaitut.
4:50
Ba al duzu Fb?
4:51
Bidali
BZZZZ!!
BITARTEAN, ANE...


LEIREREN WHATSAPPA... ZER OTE DU?
4:58
3G
Leire
konektatuta
Txatak
Kargatu aurreko mezuak
Editatu
2012ko maiatzaren 7a
Kaka zahar, mutilak bakarr sexua nahi, gaizki pasatu dt eta gozatu gabe. Alde egin nahi nun eta santujale gisa geratu naiz. Zr gertatzen zaie mutilei?
4:58
Bidali
PIK PIK PIK
3G
Leire
konektatuta
Txatak
sexua nahi, gaizki pasatu dt eta gozatu gabe. Alde egin nahi nun eta santujale gisa geratu naiz. Zr gertatzen zaie mutilei?
4:58
Eta guri zr gertatzen?? Zerg ezin EZETZ esan??
5:00
Bidali
BARRUAN DUGUN AHOTSARI KASU EGIN BEHAR DIOGU. NIK GAUR HALA EGIN DUT ETA HAU ESATEN LAGUNDU DIT: EZ, GOGORIK EZ DUDANEAN; ETA BAI, NAHI DUDANEAN!
3G
Leire
konektatuta
Txatak
Ahots hori nire kezka-susmoak dira, batzuetan beldurrezkoak...
5:01
??
5:01
Hona sekretu bat. Zuhurrak gara... sentitzen duguna ez dira gure lelokeriak edo paranoiak!
5:02
Bai gogorra gaua!!! Gero txateatuko dugu...
Bidali
AB 12
JARRAITUKO DU...


3G
5:05
46%
Txatak
PeñaUni
Nere, Irantxu Uni, Xabi...
Info
Editatu
Kargatu aurreko mezuak
2012ko maiatzaren7a
gau hau desberdina izan da
5:03
Nere
bikain pasa dut
5:03
Irantxu Uni
ba, ni oso gaizki nag
5:03
Xabi
Beste gau bat hutsik
5:04
Leire Ibarra
hobe ezer nik egindakoa baino
5:04
Unax
hurren larunb elkartuko?
5:04
Bidali
APB 12